

PRAKTIKA ESZENIKOA

IRAKASGAIAREN AURKEZPEN ORRIA

IRAKASLEAK: **Aritz Estibez** eta **Ismael Yagüe**

KURTSOA: **1. Batxilergoa**

EDUKIAK

- *Arte Eszenikoen kontzeptu eta tipologia*
- *Ikuslegoa*
- *Arte Eszenikoak historian zehar*
- *Espazioa*
- *Gorputz Adierazpena*
- *Ekoizpena*

KALIFIKAZIOA

- **KLASEKO LANA (6 puntu)**

Klasean proposatzen diren jardueren aurrean dagoen jarrera ebaluatuko da. 4 ataletan banatzen da:

- *Ekarpenak (1,5 puntu)*
- *Jarduera eta ariketak (1,5 puntu)*
- *Azalpenen jarraipena (1,5 puntu)*
- *Txukuntasun eta garbitasuna (1,5 puntu)*

	0 puntu	0.375 puntu	0.75 puntu	1,025 puntu	1,5 puntu
Ekarpenak (1,5 puntu)	<i>Ez du ezer proposatzen, interes gutxi erakusten du. Ez du ikaskideak esandakoa entzuten. Oso pasiboa.</i>	<i>Ez du ezer proposatzen, baina besteek proposatzen dutena egiteko prest dago</i>	<i>Noizbehinka proposamenak egiten ditu, modu irregularrean. Oso aldakorra egunaren arabera.</i>	<i>Ideiak proposatzen ditu irakasleak eskatzen dizkionean. Interesa erakusten du.</i>	<i>Iniziatiba handia dauka. Proposatuko ideiak eragin positiboa dute gelan. Ikaskideen iritziak errespetatzen ditu.</i>
Jarduera eta ariketak (1,5 puntu)	<i>Ez du parte hartu nahi. Oso erraz uzten ditu proposatuko lana. Eragin negatiboa.</i>	<i>Pasiboa, ez du gogo handirik erakusten.</i>	<i>Proposatutako ekintzaren arabera, interesa erakuts dezake.</i>	<i>Modu positibo batean egiten ditu, gogoak eta interesa erakusten du. Langilea da eta irakasleak proposatzen duten guztia egiten du.</i>	<i>Modu aktiboan parte hartzen du eta eragin positiboa du jardueretan. Ikaskideak laguntzen ditu.</i>
Azalpenen jarraipenak (1,5 puntu)	<i>Azalpenak oztopatu egiten ditu, ikaskidearen arreta ere oztopatzen du. Arreta falta nabaria.</i>	<i>Ez du oztopo handirik jartzen baina maiz arreta eskatu behar zaio.</i>	<i>Isiltasuna mantentzen du irakasleak eskatzen badu. Batzuetan despistatu egiten da.</i>	<i>Azalpenak jarraitzen ditu eta normalean isilik egoten da.</i>	<i>Azalpenak gogotsu jarraitzen ditu, isiltasuna mantenduz. Zalantzak baditu, galdetu egiten du.</i>
Txukuntasun eta garbitasuna (1,5 puntu)	<i>Espazioa zegoen baino okerrago uzten du (zikintasuna). Oso gutxitan jasotzen gelditzen da.</i>	<i>Ez du jasotzen, lehenago alde egiten du.</i>	<i>Noizean behin jasotzen du.</i>	<i>Irakasleak esaten dionean jasotzen du.</i>	<i>Beti jasotzeko prest dago, bere kabuz egiten du.</i>

ALAITZ BHI - 2018-2019 ikasturtea
PRAKTIKA ESZENIKOA

- TALDEKO LANA (2 puntu)

Taldeka egiten den lana auto-ebaluazioen bitartez ebaluatuko da banakako txostenen bitartez. Auto-ebaluazio nota betetako txosten guztien bataz besteko notarekin kalkulatu da.

- *Taldean ardurak hartu ditu, taldea antolatu eta gidatu du. (2 puntu)*
- *Taldean ekarpenak egin ditu, interes handia jarri du jardueran. (1,5 puntu)*
- *Taldean egin beharrekoa bete du, eta proposatutakoa egiten saiatu da. (puntu 1)*
- *Taldean 2. plano batean geratu da, ez du apenas ekarpenik egin eta esan zaionean proposatutakoa egiten saiatu da. (0,5 puntu)*
- *Ez du ezertan parte hartu, ez du apenas ezer egin. (0 puntu)*

- JARRERAK (2 puntu)

Honako beste atal hauek ere ebaluatuko dira:

- *Euskararen erabilera (0,4 puntu)*
- *Telefonoaren erabilpen egokia (0,4 puntu)*
- *Materiala ekarri / zaindu (0,4 puntu)*
- *Justifikatu gabeko berandutzeak (0,4 puntu)*
- *Justifikatu gabeko ez-etortzeak (0,4 puntu)*

Jarrerazko nota hauek hiruhileko bakoitzeko hutsegiteekin kalkulatu da modu honetan:

- *Lehenengo hutsegitea = - 0 puntu*
- *Bigarren hutsegitea = - 0,2 puntu*
- *Hirugarren hutsegitea edo gehiago = - 0,4 puntu*

EBALUAZIO JARRAITUA

Irakasgai honetan ebaluazio jarraitua izango dugu, hau da, ebaluazio bakoitzeko notan aurreko hiruhilekoetako notek eragina izango dute modu honetan:

- 1. ebaluazioko nota = 1. hiruhileko nota**
- 2. ebaluazioko nota = 1. ebaluazioko nota (%30) + 2. hiruhileko nota (%70)**
- 3. ebaluazioko nota (finala) = 2. ebaluazioko nota (%50) + 3. hiruhileko nota (%50)**

BERRESKURAPENA

- **1. eta 2. ebaluazioak:** Hurrengo hiruhilekoa aprobatarekin berreskuratzen da.
- **3. ebaluazioa (finala):** Azterketa teoriko bat egingo da, kurtsuan zehar modu praktikoan landutako kontzeptuei buruz.
- **Ebaluazio jarraitua egiteko eskubidea galtzea:** Azterketa teoriko bat egingo da, kurtsuan zehar modu praktikoan landutako kontzeptuei buruz.